

AZAROAK25

Indarkeria Matxisten aurkako nazioarteko eguna

LANTOKIETAN ASKE IZATEKO

Lantokietan ere indarkeria matxistaren aurka borrokan



www.lab.eus
/langileon-alde-hemen-erabaki/

LANTOKIETAN ASKE IZATEKO INDARKERIA MATXISTAK IKUSARAZI!

Urteak daramatzagu sindikalismo feministatik, **indarkeria matxista estrukturala dela azpimarratzen eta lan munduan ematen diren erasoak salatzeke eta indarkeria mota guztiei aurre egiteko tresnak eraikitzen**. Urteak daramatzagu **LANTOKIAK ASKE aldarrikatzen**: enpresaz enpresa protokolo eraginkorrak borrokatzen eta instituzioak interpelatzeko dagokien ardura har dezaten lehen mailakoa izan beharko litzatekeen arazo politiko eta sozial honetan.

Lantokietako indarkeria matxista **ezkutuan mantentzen den errealitatea da**: lanik gabe gelditzeko mehatxua beti dago horren atzean, horregatik indarkeria ez da behar beste salatzen ezta aditzera ematen ere. Mehatxuak eta zigorrak askotarikoak dira: kalerapenak, ordutegi aldaketak, kontziliaziorako neurriak ez baimentzea, lanpostuz inoiz ez aldatzea, lekualdaketak, edukiz hustu lana, gure lanaren gutxiespena... Indarkeria Matxista dimentsio eta aurpegi ezberdinak dituen zigor-sistema oso bat da; egiturazkoa eta sistema heteropatriarkal kapitalistaren tresna da, emakumeak* menpean mantentzeko. Lan munduan ematen den indarkeriaz ari garenean, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpenaz edota sexu-orientazioan edo genero-identitate nahiz -adierazpenean oinarritutako jazarpenaz ari gara. Hau da, kultura patriarkalaren biziraupen mekanismoek hartzen dituzten forma ezberdinez.

- **Azken urtean 22.000 emakume inguruk jasan izan dute sexu-jazarpena lan eremuan**, iazko urte amaieran Emakunde ateratako "Emakumeen aurkako indarkeriaren inzidentziari buruzko datuak EAE-n" inkestaren arabera¹ (kasu batzuetan lankideengandik, beste batzuetan nagusiarengandik).
- Sexu-jazarpena jasan duten **5 emakumetik 1** bat lan-eremuan izan da.
- Hala ere, haietako askok (%72, 4ak) ez dute enpresan salatu, ondorioen beldurratik.

Eta non daude instituzioak egoera hauen aurrean? Ematen den indarkeria hau ez ikusaraztea, tresna eraginkorrak ez jartzea... indarkeria hau **ezkutatzea** dela esan nahi dugu. Izan ere, ez dago datu hauen inguruan erregistrorik, ez zaio jarraipenik egiten, indarkeria matxistaren inguruko inkesta orokorretan ez dira agertzen...

Ez enpresek, ez administrazioak ezta lan ikuskaritzak ez daukate errealitate honi heltzeko borondate eta jarrerarik. Datuak argiak dira; ez dago egoera hauek salatzeke mekanismo eta tresna eraginkorrik. Instituzioei, zehazkiago **lan ikuskaritzari, eskatzen diogu indarkeria matxistari aurre egiteko politika eraginkorrak garatzea**.

Jarrera, sinesmen eta indarkeria matxista guztiei aurre egin nahi diegula esaten dugu LANTOKIETAN ASKE izan nahi dugula aldarrikatzen dugunean. Eta azpimarratu nahi dugu, borroka honetan jarraituko dugula sindikalismotik fronte guztietan. Ez dugu txiste sexistarik entzuten jarraitu nahi aldageletan, nahi dugun bezala jantzi eta adierazteko eskubidea izan nahi dugu, guztion lanari balio bera ematea aldarrikatzen dugu... **eta zuk, zer behar duzu zure lantokian indarkeria matxistarik gabe aske sentitzeko?**

¹ Azken urtean 126.058 emakumek jasan dute sexu-jazarpena, haietako askok (%17,3) lanean izan delarik.

